

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

42. zk.

2012ko zemendia



e

euskerearen
eguna

abenduak 3

**EGIN
DAIGUN**



ALKARREGAZ
BETI
EUSKERAZ

XV. IPUIN LEHIAKETEAK

Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñakako Udalek antolatuta aurton be ipuin lehiaketea izango dogu gure udalerrietan. Oinarriak udal antolatzaileen web orrietan jarri dira eta etxeetara be "buzoneatu" dira. Gogoan izan, lanak aurkezteko azken eguna zemendiaren 30a dala, eta sari banaketara aurten Arrietako Kultur Etxean egingo dala abenduaren 14an (barikua), arrastiko 19:30etan. Animatu eta parte hartu, sariak egongo dira-eta parte-hartzaile guztientzat.



EUSKEREAREN EGUNA ARRIETAN



Aurreko urteetako bide beretik, Arrietako Udalak bertso-afaria antolatu dau euskerearen eguna ospatzeko. Bertso-afaria abenduaren 1ean egingo da, gaueko 21:00etan, Herriko Tabernan. Gatza eta piperra Unai Iturriaga eta Etxahun Lekue bertsolariek jarriko dabe. Tikeak 25 eurotan dagoz salgai Arrietako udaletxean eta Herriko Taberxean.

EUSKERA PLAN BARRIA GAMIZ-FIKAN

Zemendiaren 23an (barikua) Gamiz-Fikako Udaletxean batzar irekia egin zan herriko alkarte eta herritarrakaz. Izan be, Gamiz-Fikako Udaletik, euskerearen erabilera sustatzeko eta euskarearen normalizazioa lortu nahian, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) diseinatu eta martxan jarriko dogu aurton be. Horretarako, herritarren partaidetza behar izan dogu zuon proposamenak entzuteko. Herrian euskereagaz lotura daukien ekintzak proposatzea zan asmoa. Orain arte antolatu diran ekintzen inguruko zuon iritzia jaso gura izan dogu, eta proposamen barriak entzun. Beraz, urtarrietik aurrera, Euskara Plan Barria martxan jarriko da!!!

TXINTXIN MAGIKOA ARRIETAN

Asier Kidam magoa Arrietan izan zan zemendiaren 9an, eta liluraturik itxi ebazan bertaratu ziran guztiak aurkeztu ebazan magia trukoakaz. Ikusleak errealitatetik urten eta dana egingarri zan mundu magikoan murgildu ziran ordu batez. Batek baino gehiagok, hurrengo egunean be, bere buruari galdetzen eutsan, zelan demontre egiten eban Kidam magoak ezerezetik 50eko billeteak bat-batean ateratzeko. Ai ene, misterio horren giltza bageunko!!



KHERAU MEÑAKAN

Kherau taldea izan genduan urriaren 19an Meñakako Herriko Tabernan. Jente asko bildu zan eta lan barriko kanta be eskeini euskuezan. Zelan ez lehenengo CDko abesti ospetsuak be entzun genduazan, esaterako, Eulearen Zortzi Nobio. Giro bikaina izan zan Meñakan Kherau taldearen musika zoragarria zala eta.



LEHENENGO SOROSPENEN TAILERRA FRUIZEN

Uribe Butroeko Zerbitzu Mankomunitateak antolatuta "Lehenengo Sorospenen tailerra" egin zan Fruizen zemendiaren 3, 10 eta 17an. Tailerra 15 ordukoa izan zan. Guztira 11 lagunek hartu eben parte, eta larrialdi baten aurrean zelan jokatu behar dan ikasi eben.



TRIKI BAZKARIA MEÑAKAN

Urriaren 6an Meñakako Bekoabadene txokoan ez ohiko bazkaria izan genduan 50 lagun aurrean. Azkoititik etorri zan Luis Laja edo Laja bigarrena, Laja pandero-jole zahararen semea, eta bera laguntzen panderoagaz, Narbaiza Eibartarra. Danatarik jo eben; soltean, arin arina, porrusalda, mexikanadak, euskal kanta klasiko zein modernoak eta lantzean gaztelazko modako abestia edo kanta mitikoren bat. Bost orduz egon ziren josten eta jentea sano pozik atara zan triki bazkaritik. Datorren urtean egingo dogu barriro.

FACEBOOK ATARIA

Gogoratu gura dogu Gamiz-Fikako Udaleko Euskera zerbitzuak Facebook ataria daukola. Bertan euskearagaz lotura zuzena daukiezan ekintzen inguruko informazioa eskaintzen dogu. 23 lagun gara jada. Animatu, eta lagun egin. Helbidea: <https://www.facebook.com/GamizFikakoUdala>.



3 ETXEBIZITZA SALGAI LARRAKOALDEN

Fruizko Larrakoalde auzoan 3 etxebizitza tasatu egin ziran 2010ean eta danak dagoz salduta 3 izan ezik. Hiru etxebizitza horreek garajea eta trasterua daukie, eta prezioak honek dira (BEZ barik):

51 B-C etxebizitza: 152.040 €

53 B-A etxebizitza: 165.060 €

55 B-A etxebizitza: 165.060 €

Fruizko Udalak dei egiten deusie interesa euki ahal daben guztiei telefono honetara deitu eta informatzeko: 94 607 37 00 (Azpiegiturak).

GAMIZ-FIKAKO XIII. MENDI IBILALDIA

Urtero lez, aurton be, mendi ibilaldia egin da. Ibilaldia urriaren 7an izan zan, eguraldi bikaina mendian ibiltzeko. Ibilbidea oso polita, eta edozein pertsonak egiteko modukoa. Hiru orduko ibilbidea izan zan. Helmugara heltzean (Gamizko frontoia) "Erromeri Alaia" trikitalariek giroa animatu eben.

PARTE-HARTZAILEAK ETA IBILBIDEA:

Helduak: 316 lagun.

Umeak: 79 lagun.

Ibilbidea: Gamiz, Aseburu, Gamiz Mendi, San Bartolome (Zamudio), Bilbaina, Loba eta Gamiz.

GERRA ZIBILAREN 75. URTEURRENA

Gerra zibilaren 75. urteurrena gogoratu genduan Gamiz-Fikan. Gerra zibilak gure herrian izan eban eragina ikusteko aukerea egon zan: irailaren 14an, Fikako txokoan, "GERRA ZIBILARI" buruzko hitzaldia eskaini eban Iñaki Olabarrietak eta argazkien proiektinoa erakutsi eban; 300 argazki inguru.

Irailaren 15ean, zapatuan, "Gure herriko bunkerrak eta lubakiak" ikusteko aukerea egon zan. Loba baserri ondoan ezkutatuta egon dira aztarna historiko eta garrantzitsuak. Herritarrak asko harritu ziran lubakiak ikustean. Guztira 90 lagun inguru animatu ziran.



EUSKAL MITOLOGIAREN ATARIA

Irailaren 8an, zapatuan, "EUSKAL MITOLOGIAREN ATARIA" egon zan Gamiz-Fikan.



Ludoteka Puzgarria
(AKER TXIRRISTA/OZTOPODUN PUZGARRIA
PILOTADUN ETXEA)+ Marrazki tailerra +
Ipuin kontalaria.
Umetxoek primeran pasatu eben.



ARRIETA

IPUIN TAILERRA ARRIETAN

Arrietako Ludotekan biltzen diran umeez Ipuin Tailerra egin eben iraila-urrian. Oihana Etxegibel kontalaria arduratu zan tailerra gidatzeaz. Tailerra egindakoek ikasitakoa praktikara erroteko aukerea izan eben Asteburu Kulturalean. Izan be, benetako ipuin kontalarien antzera areto bete lagunuen aurrean eskaini eben euren lana, eta ze ederra jaso eben txalo zaparradea !!!



AUTOIKASKUNTZA ARRIETAN

Aurten bere, igaz bezala, Arrietan euskera ikasten gabiz. Guztira 4 lagun gara eta maila ezberdinetan bagagoz bere, asteen behin, martitzenetan, arrastiko 18:30etan danok alkartzen gara mintzasaioa egiteko. Mintzasaioan euskeraz berba egiteko lotsea kentzen dogu eta geure artean euskeraz egiteko ohiturea hartzen goaz.

Gorago esan dogun moduan, igaz hasi ginan autoikaskuntza sistemeagaz.

Zer dan autoikaskuntzea galdetuko dozue batek baino gehiagok. Hona hemen azalpentxoai:

Ikasle bakoitzak bere tutorea dauko eta beragaz adosten dauz eginbeharrekoak, aste birik behin alkartzen gara geure tutoreagaz, 45 minutuko saioan, eta hurrengo aste bietan landu behar doguna emoteaz gain, egindakoa zuzentzen deusku eta daukoguzan zalantzak argitzen deuskuz. Bi asteotan 10 bat ordu eskaini behar izaten deusguz euskereari geure kabuz, bai etxean, bai liburutegian...

Materiala digitalizatuta daukie AEKkoek; holan ba, pen drive bat nahikoa da lana eskuratzeko, hori bai, gura izan ezkerro, paperean be emoten dabe materiala.

Egiten deuskuzan programazinoak geuri ikasleoi egokituak dira, eta behar doguna eskatu ahal deusguz tutoreari.

Ikastaroa urrian hasi zan martxan eta martira arte iraungo dau. Gure kasuan, ikaskideoi ezinezkoa jakun egunero euskaltegira joatea, horregaitik sistema hau aukeratu dogu, eta gainera herrian bertan gabiliz, zer gehiago eskatu daikegu?



FRUIZ

GAZTEENTZAKO LOKALA FRUIZEN

Gazteek, gainerako adin tartekoek bezala, alkarregaz egon eta ekintzak egiteko gune eta espazioak behar dabenez. Fruizko mediku kontsultategia "Lurbarri" eraikinera eroan izanak egia bihurtu dau, azkenean, gazte askorentzat ametsa zana: eurentzako lokal bat eukitea.

Urrian hasi ebazan Fruizko Udalak eskoletako obrak eta lanak urteagaz batera amaituko dirala aurreikusten da.

Lanak amaitutakoan, honeek izango dira sasoi batean eskola izandako eraikinean egongo diran lokalak:

- 1.-Liburutegia, ludoteka eta KZ Gunea hartzen dauan lokala.
- 2.-Udalak antolatzen dituen ikastaroetarako lokala.
- 3.-Gazteak herrian bertan alkartzea, egotea eta aisialdia betetzea ahalbideratuko dauan lokal barria.

Obrak hasita eta bide onetik doaz. Arlo hori egintzat emon daikegu. Udalaren zeregina izango da orain, lokala ze adin tartekoei begirakoa izango den zehaztea, ze erabilera emon ahal izango jakon, ze baliabidez hornituko dan, ze zerbitzu eskaini ahal izango diran... Horretarako guztirako udalak ezinbesteko deritxo herriko gazteakaz alkartu eta euren eretxi eta ekarpenak jasotzea. Udalak daukozan baliabideak kontuan izanda, danen artean lokalari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Eskoletako lan horrek Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagunduko dauz.



Lanak nahiko aurreratuta dagoz eta urteagaz batera amaituko dirala aurreikusten da.

FRUIZKO LIBURUTEGIA ALTXORREZ BETERIK

Pasa dan urrian emon jakon hasierea –beste urte batez- "Liburutegia altxorrez beterik" irakurketa lehiaketeari. Oraingoan, eskoletako obrak dirala-eta "Lurbarri" eraikinera eroan dira liburutegiko liburuak. Liburuez gain, Saioa liburuzaina eta lehiaketarako bete beharreko fitxak be bertan izango dozuez.

Gogoratu abenduaren 1ean (zapatua) egingo dala sari banaketea, 18:30etan, **Lurbarri eraikinean**, eta 18 urtetik beherako parte-hartzaile guztiek diplomea eta saritxoren bat jasoko dabela. 18 urtetik gorakoan artean, ostera, afari bat zozketatuko da.

Eta ohitura dan moduan sariak ezeze, ipuin kontaketea eta meriendatxoa be egongo da. Animatu eta parte hartu!



Abenduaren 1ean LURBARRIN

SARIAK

IPUIN KONTAKETA

MERIENDA GOXOA

ALKARRIZKETEA

Lehenagoko jostunak

Gaur egun gure etxeko armairuak arropaz beterik dagoz, arropen zahar egiteko be astirik ez deusiegi ia emoten. Gure guraso eta aitita-amamen sasoi hori ez zan holan izan. Arropa berririk "egin" egin behar izaten ziran, eta zaharrak, zelan ez, konpondu eta berrerabili, konpondu eta berrerabili...

Lehenagoko jostunen edo jostunaren bizitzaz apur bat gehiago jakiteko, Joxpin Gorozika Loroñogaz alkartu gara oraingo honetan.



Joxpin Fruizko Botiola auzoko Dimasene baserrikoa da, 77 urte ditu eta jaio zantetik bizi izan da bertan. Hiru neba-arrebata zaharrena da. Joxpin Botiola auzoko eskolan hasi zan ikasten zazpi urtegeaz, 14 urtegeaz Bilbora joan zan, eta urte bi interna egon zan "Nuestra Señora del Pilar" ikastetxean "kultura general" ikasten. Bilboko ikasketak amaituta, jostun izateko ikastera joan zan Gamiz-Ibarrera, hango jostun bategeaz.

Jospin, zelan hasi ziran josten?

Ama jostuna izan zan eta neure ilusinoa betirik jostea zan. Bilbon egon nintzan ikasten eta handik etorri nintzanean hasi nintzan josten. 45 urte egin nebazan josten, 21 urtegeaz hasi eta jubilatatu arte, beti bertan, etxean. Jostunaren beharra oso gogorra da. Irabaziak eta josten emondako orduak kontatzen badoguz, etekin eskasa ateratzen da, baina niri beti gustatu izan jat, eta gustura bazagoz, segidu egiten da.

Zelan josten zenduen lehen?

Orduan, oraingo moduen barik, "telie" erosita egiten zan arropa guztia.

Lehenengo hasi nintzan amaren josteko makinegeaz, makina zaharra, baina harek ez "rematerik" ez "sobrileuek" ezer ez eustan egiten. Manilla bat eukan alde batean eta eskuegeaz bueltak emonda funtzionatzen eban, gero erosi neban orain daukodana eta honek danatarik egiten dau.

Honek makineak 50 urte inguru eukiko dauz, eta berorregeaz manejetan naz; gaur egungo josteko makinak, oster, elektrikoak dira.

Zelango arropak josten ziran lehen?

Lehen arropa dana "egin" egiten zan. Ez ginin dendara joaten arropa erosten, eginekorik ez zan-eta egoten.

Lehen bi eratako arropak geunkazan: astegunetako arropak eta jaiegunetakoak.

Astegunetarakoentzako telak saltzen etxez etxe "telerue" etortzen zan edo Mungiaiko plazan bere saltzen ziran, baina jaiegunetako telak erostera Bilbora joan behar izaten zan. Bilbora joan ezin izaten zanari, neuk erosten neuntsazan. Gainera, jostunoi Bilboko denda horretan merkeago saltzen euskuezan.

Zelako arropak josi izan dozuz?

Danatarikoa josi izan dot nik, hasi umeen arropak (umien arropak jostun danak ez ebezan egiten baina nik asko egin dodaz), gizonenak (prakak eta alkondarak), edadekoenak, gazteenak eta dananak. Izarak be egin dodaz, telea erosi eta gero makinea pasatu, bodarako arropak be bai...



Arropa elegantea egin behar izaten nebanean patrioiak erosten nebazan Bilbon, gero aldizkariak-eta hasi ziran patrioiak ekartzen. Arinago figurinak eukiten nebazan gazteek modeloa aukeratzeko, baina patrioia nik egin behar izaten neban. Baina aldizkariak zabaldu ziranean patrioiak ekartzen ebezan neurriakaz.

Abrigoak bere egiten ziran, horreek "probeagaz" egiten ziran. Bi proba egiten ziran, lehenengo ebaki eta "hilibanau", gero probatu, errakuntzak aurkitu, orratzakaz markatu, eta konpondu ondoren bigarren proba egiten zan. Behar handia emoten eban baina berokiak, orain ez bezala, urte askotarako izaten ziran, urteak eta urteetarako.

Noz egiten ziran arropa barriak?

Lehen etxean egoan guztia aprobeztatzen zan, ahalik eta etekin handiena ateratzen jakon danari. Familietan seme-alaba asko izaten ziranez, zegozan arropa danak aprobeztatzen ziran; seme-alaba zaharrenei arropak txiki gelditzen jakiezanean, neba-arreba gazteagoei emoten jakiezan. Arropak egiten ziranean be, luzeraz eta zabaleraz tela gehiago uzten zan, konponketak egin eta arropa ahalik eta gehien aprobeztatatu ahal izateko.

Baina, bai, arropak egin eta estreinatzeko egun bereziak egoten ziran: trajea estreinatzen zan, adibidez, Aste Santuetan; arropea San Pedroetan; eta abrigua, barriz, Kontzesino egunean. Arropa barria lehenagotik josita euki arren be, egun horreek heldu arte ez zan estreinatzen.

Egun berezi horreek zirala-eta jostunok behar asko eukiten genduan, ni neu egonda nago gau eta egun josten, ordu bi edo bat lo eginda, edo bape lorik egin barik be.


Fruizkoentzat bakarrik josten zenduan?

Ez. Orduan herrian joskile asko egoan eta beharra be danantzat egoan. Kanpotik be enkargu asko etortzen jakuzan: berton bizi izandako jentea eta gero kanpora bizitzera joandakoarena, haien ezagun eta senitartekoena... Nik kanpokoentzat asko josi dot: Gernikakoentzat, Bilbokoentzat, Mungikoentzat, Erandiokoentzat, guk kalean baino arean merketxoago egiten genduan eta horregaitik be asko etortzen jakuzan.

Alde handia dago lehenago jostunen eta oraingoen artean?

Lehen, herri guztietan egoten ziran jostunak, eta etxeetan be andra danak edo ia danak josten jakiten eben. Baina orain arropa guztiak eginda datoz eta dendetara joan eta eginda dagozan arropak erosten doguz, datozan moduan jantzi eta erabiltzeko prest. Gaur egun, jostunengana arroparen bat laburtu, luzatu, zabaldu, estutu ... gura dogunean bakarrik joaten gara.

Lehen arropa gitxi eukiten genduan baina neurrira egindako arropea izaten zan, kalidadeko teleagaz egindakoa, ondo josiko arropea. Lehen urteak eta urteak irauten eben baina orain jenteak kanbioa gura dau, urte batetik bestera armairuan dagoan ia guztia barriztatzen dau, orain total diferentea da dana, neuretzako be arroparik ez dot egiten...





Euskararen Etxea Bilboko San Inazio auzoan dago, eta atek 2004ko abenduaren 3an zabaldu ebazan lehengoz; harrezkero, zabal-zabalik dago euskaltzale guztientzat, ikertzaileentzat eta euskarari buruzko gaietan interesa daukien danantzat.

Euskerearen etxea Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzari esker sortu zan. Helburua: euskereari buruzko gune espezialdua izatea.

Eraikinak lau solairu daukoz. **Gorengo solairu biak** euskal gaietan lanean dabizan alkarte eta erakundeei dagoz zuzenduta. Bertan hartzen dabe leku, esaterako, Euskal Idazleen Elkarateak, Topaguneak (Euskara Elkarateen Federazioa), Euskal Pen Klubak, Mendebalde Kultura Alkarateak eta Bizkaiko Ikastolen Alkarateak.

Bigarren solairuan, Euskerearen Mediategia, Liburutegia eta Areto Balioaniztuna dagoz.

Eta **lehenengo solairuan** dogu, osteratxo bat egitea benetan merezidu dauan **Euskararen Interpretazino Zentroa**.

Euskararen Interpretazino Zentroak euskereari buruzko informazioa eta datuak eskaintzen deutsoz bertaratzen dan eta interesa daukon guztiari, modu ezin entretenigarriagoan eta pedagogikoan.

Solairu guztia tren geltoki baten antzera dago girotuta eta euskerearen historia eta bilakaera azalduteko euskerearen bidaia egiten da denporan zehar. Bidaia horrek lagunduko deusku ulertzen euskereak zelan irauan dauan 6.000 urtetan, garapena zelangoa izan dan, euskalkiak zer diran, berbak zelan eraikitzen diran...

Bidaiak gure hizkuntzearen barri emoteaz gainera, bizipen sano entretenigarria eskaintzen dau teknologia barriei esker eta, egia esan, ez da plan bape txarra abenduko oporrak aprobetxatu eta familiagaz zein lagunakaz osteratxo bat egiteko.



Informazio Orokorra

- Euskararen Interpretazino Zentroa bisitatzea DEBALDEKOA da.
- Orduategia: Astelehenetik barikura 9:00etatik 16:00rak arte. Bisita gidatua be egin daiteke.
- Erreserbak egiteko: 944028081
- Kokapena: San Inazio, Agoitz Plaza 1 (Lehendakari Agirre 150 zenbakitik gertu)



euskerearen eguna

abenduak 3



Historia apur bat:

1949ko abenduaren 3an ospatu zan lehenengo aldiz Euskerearen Eguna, Eusko Ikaskuntza erakundeak bultzatuta. Garai hartako Espainiako egoera politikoak eraginda, Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan eta Ameriketako hainbat lekutan egin zan.

1995an, Euskal Herritik kanpora bizi diran euskaldunek egin-dako Lehenengo Mundu Biltzarrean eskatutakoa bere eginez, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak alkar hartu eta Euskerearen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu eben. Geroztik, urtero-urtero, Xabierko Frantzisko santu euskaldunaren egunean, ospatu izan da Euskerearen Nazioarteko Eguna.

“Alkarregaz beti euskeraz” ekimena:

Euskerearen egunaren harira ekimen ugari izaten da udalerrri asko eta askotan.

Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udaletako Euskara Zerbitzuek aspalditik datorren oihutereagaz jarraitu eta aurten be egutegiak banatuko dabez etxe guztietara “Alkarregaz beti euskeraz” esaldia goiburutzat hartuta. Egutegia antxinako erretratu eta esaerakaz joango da atonduta. Horregaz guztiorregaz:

- 1.- Aitortza egin gura jakie gure nagusi eta arbasoei. Izan be, euskerea gure egunetara bizirik eta osasuntsu heldu bada, batez be, lehenagokoek erabili eta jagon dabelako izan da, batez be.
- 2.- Gogorarazo gura da udalerrri euskaldunak izaten jarraitzeko ezinbestekoa dala geure artean euskeraz egin eta euskeraz bizitzea.

Hori holan dala, euskerearen eguna abenduaren 3an ospatu bai, baina egunero-egunero landu beharreko erraminta danez, dei egiten deusuegu, euskeraz bizitzeko erabagiaren alde egiteko.

Etxeko hormaren batean, ondo ikusteko lekuren batean eskegi eta 2013ko egutegiaren esangureari erreparatu: gitxienez-gitxienez be, 2013 arrazoi dagoz (eguneko bat) euskeraz egiteko.



EGIN DAIGUN

MEÑAKA ENERGIA BARRIZTAGARRIEN ALDE

Meñakako Mesterika auzoan, Santillandi baselizearen norabidean hamazazpi farola ipini dira eguzkiaren energiagaz baliatzen direnak. Egunez argi naturala hartuten dabe eta gabaz argi-ingar eran zabaltzen dabe. Holan herri erditik alboetara dagozan baserriak argia izango dabe bidean. Ganera, ez dau mantenimendu handirik eskatuten, eta instalazinoa sano sinplea daukie.

Zer da instalazino fotovoltaikoa?

Instalazino fotovoltaikoa, generadore fotovoltaikoak osatzen du, eta hau era berean modulu batez osaturik dago. Honen betebeharra eguzkiaren energia argi-ingar bihurtzea da. Ekoiztutako "korriente kontinua" akumuladoreetan biltzen da, honen eraginaz etenik bako energia lortuteko. Holan egunez bildutako eguzki izpien energia, gabaz argi-ingar bihurtuta atarako da.

180W daukie modulu fotovoltaiko bakotzak eta egun baten 660w sortu leike. Modulu fotovoltaikoetan sortutako energia eguzki-baterietan pilatzen da. Luminaria edo argia egiten duen led-ak 20W ditu.

Zenbat denborarako argia dogu era honetako farolekin?

Hamabost eguneko autonomia daukie, egunean zortzi orduz funtzionatzen egon ostean. Holan nahiz eta egun ilunak izan eta eguzki izpi gitxiago jaso, lanean jaraituten dabe argindarra sortuz.

Amaitzeko

Herri barruan hirurogeita bost argi puntu edo farola ipini dabez kontsumo murrizteko bonbilla edo led-ekin. Honek energia aurrezten dau. Esaterako; lehen 250W eukiezan led zaharrak, eta orain 27W barriak. Honegaz guztiegaz hainbat diru aurrezten hasi gara Meñakan, eta hori ondo dator gagozan garai latzetan.




EKINTZAK MEÑAKAKO UDAL LIBURUTEGIAN

- ESKULAN TAILERRAK 6-12 urtekoentzat:

Ponpoin animatuak, azaroaren 17an, 11:30etatik 13:00etara

Izozgailuan jartzeko imanak, Abenduaren 1ean, 11:30etatik 13:00etara



- IPUIN KONTAKETA

Saroa Bikandi kontalariaren eskutik,

2-6 urtekoentzat, azaroaren 19an, 17:30etan



UMEEN TXOKOA



"JATEN DOGUNA GARA"

1. Ados zagoz goiko esaldi horregaz?
2. Osasuntsu jaten al dogu zure ustez?
3. Osasuntsu egoteko ZER JAN BEHARKO GEUNKE? ETA ZER EZ edo OSO GITXI?
4. Zer aholku emongo zeunke medikua urrun eukiteko?



AITZOL FEIJOO ORMAETXE, 6 URTE (MEÑAKA)

- 1.- Bai. Adibidez, esnea hezur gogorrak eukiteko.
- 2.- Bai.
- 3.- Handia eta gogorra egiteko esnea, fruta eta barazkiak. Gailetak, txutxeak, kasa eta holangoak bakarrik jaiegunetan eta urtebetetzeetan.
- 4.- Fruta asko jan eta esnari ezitia botatzea gaixorik ez egoteko.



MADDALEN BILBAO PRIETO, 11 URTE (ARRIETA)

- 1.- Bai, ados nago.
- 2.- Normalean ez, kalte egiten deuskuezan gauzak gehiago gustatzen jakuz.
- 3.- Danatarik jan eta kantitate egokian. Gitxi jan behar doguna, adibidez gozokiak, asteburuetan bakarrik jatea.
- 4.- Kirola egin, ohera goizetik joan, ondo gosalduta eta eguneroko 5 otorduak egin,



NAROA MARKAIDA ELIAS, 7 URTE (FRUIZ)

- 1.- Bai, ados nago. Nik uste dot ondo eta indartsu egoteko osasuntsu jan behar dogula.
- 2.- Batzuetan bai baina beste batzuetan ez, txutxe asko jaten dogulako.
- 3.- Barazki eta fruta asko osasuntsu egoteko eta ez azukre lar daukiezan gauzak (pastelak, txutxeak eta holangoak).
- 4.- Osasuntsu jan, kirola egin eta ondo lo egin.



MAREN URREJOLA TORRONTEGI, 10 URTE (GAMIZ-FIKA)

- 1.- Bai. Ze segun ze jaten dogun lodi jartzen gara edo ez, osasuna daukogu edo ez.
- 2.- Bai. Danatarik jaten dogulako.
- 3.- Barazkiak eta fruta jan beharko geunkez. Donutsak, pastelak eta horretariko gauzak ez.
- 4.- Osasuntsu jan, danatarik eta neurrian.

DENPORA-PASAK



(BERRIA EGUNKARIA,
"MANTANGORRI"
GEHIAGARRIA)

OSATU BIDEA.
HEMEN DOZUZ
HORRETARAKO
BEHAR DOZUZAN
FITXAK.



ZERI ESATEN JAKO... MOROKILE ???
EZ DOZULA INOZ PROBATU???
EGIZU ETXEAN ETA BAIETZ GUSTAU!!

Euskerea da euskaldun egiten gaituena

ESAERA ZAHARRAK

- Gauza ona baño, feria ona hobe.
- Plaza gizonak eskuak zuri.
- Jokalarien poltsak, bi zulo.

TXISTEAK

KAMASUTRA

Senarrak emazteari:


- Eta gaur arratsaldean beste jarreraren bat probatuko bagenu?
- Ederto! Zuk arropa lisatu eta afaria prestatu, eta nik telebista ikusiko dot garagardo bat hartuz.

Argia aldizkaria, 2336 .zk.



NON DAGO ATARATA ARGAZK I HAU? ARRIETAN, FRUIZEN, GAMIZ-FIKAN ALA MEÑAKAN? BAIETZ IGARRI !!

(Aurreko zenbakiko erretratua Arrietako Jainko auzoan atarakoa izan zan.)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

SAN MARTINAK

"Lehen asko indar handiagoa gaur baino. Jan San Martinetan Arrietan. Bermeotik bere asko etorten ziran. Hona kuadrilak etortzen ziran Bermeotik San Martin bezperan eta Gernikatik bueltan joan. Busturriarrak be asko.

Jente horrek tabernetan jaten eban eta lo tejabanatan eta. Bero-bero egin edariagaz eta ez zan egoten leku txarrik. Orduan etxekadak jentea etorten zan bezperan. Etxe guztia beterik egoten zan dana pasau arte.

Orduan jaten genduan karabantzua eta gisadua edo holan".

(Arrietako euskaldunen jakituria, 133. or.)



ZENBAKI HONETAN PARTE HARTU DABE:

Olatz Axpe
Ainhoa Enzunza
Asier Legarreta
Maria Olazar
Maite Martinez
Mungiako Kinttopeko AEK
Zuriñe Goti

ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA
EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU